

# Hitzordu

## Marrazioak

*2009ko azaroaren 16tik 20ra egin ziren I ilustrazio topaketak Galtzagorri Elkarteak eta Artelekuk antolatuta. Topaketak Donostiako Arteleku Arte Garaikide gunean burutu ziren. Hor egin zen lana Ipupomamua saioak eman zuen 2009ko abenduaren 4an. Saioa ikusgai dago EITBko webgunean: [www.eitb.com](http://www.eitb.com) (ETB3). Bukatzeko, aipatu ilustrazio topaketa hauetara bertaratuek (ikasleek) blog bat sortu dutela: <http://marrazioak.blogspot.com/>*



### Sarrera

Literaturan, orokorrean, ilustrazioak garrantzi berezia du. Baina haren funtzioa ezinbestekoa da Haur eta Gazte Literaturan. Izan ere, haurrek oraindik irakurtzen ez dakitenean, marrazkiak irakurtzen dituzte, haiekin harrapatuta gelditzen dira.

Sarri ilustrazioa bigarren mailako elementutzat hartu izan da literaturan. Gure ustez, akats bat da. Izan ere, gutako askok oroitzen ditugu txikitako ipuin eta istorioak irudiekin lotuta. Beraz, ezinbestekoa da irudigintza lantzea Haur eta Gazte Literaturaz ari garenean. Eta haur txikienean kasuan, irudien magiak garrantzi berezia du etorkizuneko irakurleak sortzeko.

*Ilustratzaile Berrientzako Jardunaldiak. Marraz(i)oak*

Galtzagorri Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, **Marraz(i)oak** izeneko ilustratzaile berrien topaketak antolatu zituen, eleberri grafiko nahiz album ilustratuen gidoigintza eta irudigintza topaketak. Bost eguneko ikastaroa izan zen, goiz eta arratsaldean egin zena.

**Azalpena**

Ilustratzaile hasiberriek sarri faltan sumatzen dute formazioa. Beraz, jardunaldi horiek be-  
raientzako formazio aukera gisa izan ziren pentsatuta. Formazioa ez zen irudigintzari bideratuta  
izan, baizik eta ilustrazioari: alegia, gidoi narratibo bati jarraiki egin beharreko ilustrazio lanari.  
Ilustrazioak literaturan duen rol hori landu zen, beraz. Ondorioz, istorio bat ilustratzeko bideak  
landu ziren.

10 ilustratzaile berri edo hasiberriri beka bana eman zitzairen. Beka horrek zera estaltzen du:  
materiala, egonaldia eta dietak. Beraz, astebete (5 egunetan) **Artelekun** formazio jarraian aritu  
ziren.

Beraiekin batera irakasle bi egon ziren: bata gidoilaria, Harkaitz Cano; bestea ilustratzailea,  
Ignasi Blanch. Gidoilariak hari narratiboari buruzko formazioa eman zuen; ilustratzaileak hari  
narratibo hori oinarri hartuta, ilustrazioaren lanketaren ingurukoa. Biak, bakoitza bere alorrean,  
oso profesional adituak dira.